

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

815

AGINDUA, 2025eko otsailaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez honako agindu hau aldatzen baita: Agindua, 2024ko ekainaren 11koa, zeinaren bidez argitara ematen baitira hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak).

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 6ko Aginduaren bidez, partzialki baietsi da Jon Kortabarria Mantzizidor jaunak goian adierazitako Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 11ko Aginduaren (2024ko ekainaren 20ko EHAA) aurka jarritako berraztertzeko errekurtsua, eta, horrenbestez, Jon Kortabarria Mantzizidor jaunari eskubidea aitortzen zaio ohiko lehiaketa-oposizioan hautatua izateko, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Biologia eta Geologia espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizuna, 7,3333ko puntuazio orokorrarekin.

Era berean, aipatutako hautaketa-prozesua arautzen duten deialdiaren oinarriak ikusita, beharrezkoa da kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak ordenatzea lortutako puntuazio orokorraren arabera. Horrela, lortu nahi duten kidegoaren espezialitatean guztira deitutako plaza-kopuruaren berdina edo txikiagoa den ordena-zenbakia duten hautagaiak hautatuko dira.

Beraz, hautatutako izangaien zerrenden antolamenduan eginiko aldaketa honen ondorioz, beharrezkoa da zerrendan sartzea hasieran hautatua izan ez zen, baina, errekurtsuaren baiespen partzialaren ondorioz, puntuazio orokorra zuzendu zaion eta espezialitate horretan hautatutako azken izangaiak lortutakoa baino puntuazio handiagoa lortu duen pertsona. Era berean, zerrendetan lehendik zegoen pertsona baten posizioa atzeratu behar da.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 11ko Agindua, zeinaren bidez argitara eman baitziren hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak), II. eranskinean sartzeko ohiko lehiaketa-oposizioan parte hartu zuten pertsona hauek, non hautatuak izan baitira, errekurtsuak baietsi ostean:

Jon Kortabarria Mantzizidor jauna izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Biologia eta Geologia espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizuna, 7,3333ko puntuazio orokorrarekin.

Bigarrena.– Hamar egun naturaleko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautatutako Jon Kortabarría Mantzizidor izangaia Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 12.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzan.

Dokumentazioa online aurkeztuko da, <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – Tramitagune – «Administrazio-espeditentak: eskabideak, erreklamazio formalak, errekurtsuak» – Gainerako izapideak

Agindu honen eranskinean, zinpeko adierazpenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak entregatzeko» eredia ere. Eredu hori ere, bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko da.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu, edo dokumentazioaren azterketatik ondorioztatzen bada deialdiaren 2. oinarrian adierazitako betekizunen bat betetzen ez duela, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko ditu, mediku-azterketan ez-gai gisa kalifikatzen bada.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 11.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

2025eko otsailaren 20a, osteguna

ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

HAUTATUEK AGIRIAK ENTREGATZEKO

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Espezialitatea:		
<p>Hautatua izan naiz Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan; hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 12. oinarria):</p>		
<p>AURKEZTUKO DITUZUN DOKUMENTUEN ZERRENDA (Markatu entregatuko dituzunak)</p> <p><input type="checkbox"/> Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. (*)</p> <p><input type="checkbox"/> Nortasun Agiri Nazionala (edo, atzerritarra bazara, beste dokumentu batzuk, 12.1.a) oinarriaren arabera)(*)</p> <p><input type="checkbox"/> Zinpeko adierazpena edo promesa</p> <p><input type="checkbox"/> Desgaitasun-txanda: Organo eskudunen ziurtagiria, izaera hori aitortzeko (% 33ko desgaitasuna)</p> <p><input type="checkbox"/> Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa duzula egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita zaudela egiaztatzen duen esperientzia edo titulua.</p> <p style="margin-left: 40px;"><input type="checkbox"/> PPD ziurtagiria edo master-titulua</p> <p style="margin-left: 40px;"><input type="checkbox"/> Titulu baliokideak</p> <p style="margin-left: 40px;"><input type="checkbox"/> Irakasle-esperientzia</p> <p><input type="checkbox"/> Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortua izan ez zarela adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina. (*)</p> <p><input type="checkbox"/> Hizkuntza-eskakizunaren tituluak edo ziurtagiriak, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez badaude.</p> <p><input type="checkbox"/> Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea (Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan)</p> <p><input type="checkbox"/> Praktikak atzeratzea eskatzeko justifikazio-agiria, salbuespeneko kasuan.</p> <p>(*) DOKUMENTUA EZ BADUZU ENTREGATUKO eta hura kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.</p>		
Oharrak:		
(aldi baterako salbuespen-egoeran bazaude (2.1.f oinarria) atal honetan adierazi).		
Data, tokia	Izenpetua	

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA

2025eko otsailaren 20a, osteguna

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA
ZINPEKO ADIERAZPENA

Nik.....

NAN zenbakia:.....

ADIERAZTEN DUT, zinez edo promes eginez, ez nautela egotzi ezein administrazio publikotatik diziplina-espediente baten ondorioz, ez nagoela desgaituta funtzio publikoak egiteko, eta ez nagoela Administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasunen legezko kausetan sartuta.

....., 2025eko.....ren(a).

Izpta.:

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN zenbakia:.....

ADIERAZTEN DUT, zinez edo promes eginez,(e)(a)n (estatuaren izena) funtzio publikora sartzearagozten duen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez dudala.

....., 2025eko.....ren(a).

Izpta.: